

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

“Gorbeia hartuenean eta Askargan gaineko kutxatilararen artean Amurrioko hodiak berritzeko proiektu eguneratua”-k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta aipatutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko eta/edo behin betiko okupazioko eta, hala badagokio, balio justua ezartzeko aktak egiteko

Foru Gobernu Kontseiluak, 2023ko martxoaren 14an egindako bilkuran, 127/2023 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Honako proiektu hau jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioen erantzuna: “Amurrioko hoditeria Gorbeia hartuenean eta Askargan gaineko kutxatilararen artean berritzeko proiektu eguneratua”. Proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onestea. Okupatzeko beharra deklaratzeko. Presako prozedura. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 19ko 441/2022 Erabakiaren bidez, behin betiko onetsi zen “Amurrioko hoditeria Gorbeia hartuenean eta Askargan gaineko kutxatilararen artean berritzeko proiektu eguneratua”, eta hasierako onespina eman zitzaion proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatz eta banakakoari, eta jendaurrean jartzeko nahitaezko izapidea bete zen.

Jendaurrean egon den aldiaren, alegazio idazkiak aurkeztu dituzte Arabako Lurralde Historikoan kokatutako 13/000 eta 44/000 finkeen inguruan, eta Desjabetze Atalak eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak aipatutako idazki horiek aztertu eta haien gaineko txostenak egin dituzte, zeinak Bide Azpiegituren Zuzendaritzak eta Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak onetsi baitituzte, eta bere egin ditu Foru Gobernu Kontseilu honek; horiek dira erabaki honen oinarria eta arrazoiketa, eta alegazio egileei igorriko zaizkie, aurkeztutako alegazioak baietsi edo ezetsi izana arrazoitzeko.

Era berean, behin betiko onetsi behar da proiektu horren eraginpeko ondasun eta eskubideen zerrenda. Zerrenda hori egiteko kontuan hartu dira Amurrioko Jabetza Erregistroak egindako jabari eta zama ziurtagiriak, aurkeztutako alegazioei emandako erantzunak, 8/000 finkeen okupazioa 33 m² handitu dela, eta 1/000, 2/000, 3/000, 5/000, 6/000, 13/000 eta 29/000 finkeen egungo aprobetxamenduak.

Arabako Lurralde Historikoko ondasun eta eskubideen desjabetzea 56.268,68 eurotan balioetsi du Desjabetze Atalak.

Bestalde, desjabetze espedientea abiarazteko, ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra deklaratu behar da, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Abenduaren 23ko 3376/1971 Dekretuaren artikulua bakarrean xedatzen da ezen herriak hornitzeko urak edateko gai bihurtzeko obrak presakotzat aitortuko direla, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua ondoietarako. Hori dela eta, ulertzen da proiektu honek dakarren jardunak berekin dakarrela okupatzeko premia, eta desjabetze espedientea Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen xedatutako presako prozeduraren bidez izapidetu ahal da.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren obra publikoa proiektatu eta gauzatzeko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36. artikuluan eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onesten duen

apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 6.e) artikuluetan jasotakoaren arabera. Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetu ahal izango ditu, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1954ko abenduaren 16ko Legeak 2.1 artikuluan.

Proiektuek berekin dakartenean onura publikoaren adierazpena egin beharra desjabetzeak gauzatzeko eta desjabetzeek eragindako eskubide eta ondasunen behin betiko zerrendak egiteko, erakunde honetan, Foru Gobernu Kontseilua da proiektuak onesteko eskumena duen organoa, hala xedatzen baitute Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte hartze eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian.

Finantza eta Aurrekontu zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. "Amurrioko hoditeria Gorbeiaiko harguneen eta Askargango gaineko kutxatilarren artean berritzeko proiektu eguneratua" jendaurrean egon den bitartean aurkeztutako alegazioei erantzutea, eta Desjabetze Atalak eta Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak emandako txostenen arabera baiestea edo ezeztea.

Bigarrena. Onestea "Amurrioko hoditeria Gorbeiaiko harguneen eta Askargango gaineko kutxatilarren artean berritzeko proiektu eguneratua" k eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, zeina erantsitako eranskinean baitago jasota.

Hirugarrena. Ondasun eta eskubide horiek okupatu eta eskuratzeko beharra adieraztea, desjabetu, aldi batez okupatu eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Laugarrena. Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan araututako presako prozedura bidez izapidetzea desjabetze espedienteak.

Bosgarrena. 56.268,68 euroko kreditu atxikipena egitea, Arabako Foru Aldundiaren 2023ko aurrekontuko 50106. G/453501/60000500 "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura, eragindako ondasun eta eskubideen balio justua dela eta ordaindu beharreko zenbatekoei aurre egiteko.

Seigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak eranskinean jasotzen diren finkei dagoen balio justuaren zenbatekoa ordain dezala, Desjabetze Atalaren buruak balio justua ordaintzeko proposamen txostena aurkeztu eta gero. Ordainketa hori aipatutako lerro eta zorpekin erreferentziaren kontura egingo da, legeak ezarritako epeetan.

Zazpigarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko titularrari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen Arabako Lurralde Historikokoaren 2023rako Aurrekontua Betearazteko abenduaren 20ko 23/2022 Foru Arauaren 15. artikulua.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtoa jar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, nahi izanez gero, lehenago, berraztertze errekurtoa aurkez dakioko organo honi, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera."

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Amurrioko Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskainiz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 15a

Bide Azpiegituren zuzendaria
FERRAN SOLÉ I PALLEJÀ



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Bide Azpiegituren eta
Mugikortasunaren Saila
Departamento de Infraestructuras
Varias y Movilidad

PROIEKTUA / PROYECTO

Gorbeaiako hartuneen eta Askargan gaineko kutxatilarren artean Amurrioko hodiak berritzeko proiektu eguneratua /
Proyecto actualizado de renovación de las conducciones de Amurrio entre las captaciones del Gorbea y la arqueta del Alto Askargán

Udal Mugartea / Término Municipal: Amurrio

Esp./Expte. 2021/2

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m²			EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOAK	LURRAZPIKO AKUEDUKTU ZORTASUNA (3m)		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m²			DÍA	HORA
		POLIGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE SUBTERRÁNEA DE ACUEDUCTO (3m)		
1/000	ISASI, BILBAO, JUAN JOSE ISASI, BILBAO, J. RAMON ISASI, BILBAO, FERNANDO ISASI, BILBAO, M. DE LOS ANGELES	4	376	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	8 0	620 892	620 142	17/4/23	10:00
33/000	ISASI, BILBAO, J. RAMON ISASI, BILBAO, JUAN JOSE ISASI, BILBAO, FERNANDO ISASI, BILBAO, M. DE LOS ANGELES	1	166	Mendia / Monte	0	74	26	17/4/23	10:00
15/000	AGUIRRE, OLAMENDI, JESUS	11	92	Zelaia / Pradera	0	537	182	17/4/23	11:00
21/000	ALBIZUA, ITURBE, MANUEL	11	875	Zelaia / Pradera	0	319	27	17/4/23	12:15
22/000	ALBIZUA, ITURBE, MANUEL	11	869	Zelaia / Pradera Mendia / Monte	0	145 589	0 297	17/4/23	12:15
23/000	ALBIZUA, ITURBE, MANUEL	11	873	Ez-emankor / Improductivo	4	549	280	17/4/23	12:15
25/000	ALBIZUA, ITURBE, MANUEL	11	101 F	Zelaia / Pradera	0	553	195	17/4/23	12:15
26/000	ALBIZUA, ITURBE, MANUEL	11	803	Ez-emankor / Improductivo	0	468,08	185	17/4/23	12:15
2/000	ARBAIZA, URRAZA, M. FELISA	4	374	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	4 0	209 403	209 66	18/4/23	10:00
3/000	ARBAIZA, URRAZA, M. FELISA	4	375	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	4 0	737 948	737 11	18/4/23	10:00
27/000	CHAVARRI, ASPIZUA, TEODORO ASPIZUA, GORBEA, M. TERESA ASPIZUA, GORBEA, ZURINE	11	82	Ez-emankor / Improductivo	0	416	194	18/4/23	11:30
28/000	CHAVARRI, ASPIZUA, TEODORO ASPIZUA, GORBEA, M. TERESA ASPIZUA, GORBEA, ZURINE	11	760	Mendia / Monte	0	10	5	18/4/23	11:30
29/000	CHAVARRI, ASPIZUA, TEODORO ASPIZUA, GORBEA, M. TERESA ASPIZUA, GORBEA, ZURINE	11	81	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	4 0	691 956	691 0	18/4/23	11:30
30/000	CHAVARRI, ASPIZUA, TEODORO ASPIZUA, GORBEA, M. TERESA ASPIZUA, GORBEA, ZURINE	11	758	Mendia / Monte	0	479	157	18/4/23	11:30
32/000	CHAVARRI, ASPIZUA, TEODORO ASPIZUA, GORBEA, M. TERESA ASPIZUA, GORBEA, ZURINE	11	755	Mendia / Monte	0	120	26	18/4/23	11:30
14/000	BARRENGOIA, OLAMENDI, J. IGNACIO BILBAO, BARRENGOIA, M. YOLANDA BILBAO, BARRENGOIA, NURIA	11	114	Mendia / Monte	0	607	4	19/4/23	10:00
45/000	GOTXI, IBARROLA, J. MARIA GOTXI, IBARROLA, F. JAVIER	1	737	Zelaia / Pradera	0	3730	15	19/4/23	10:45
18/000	INIGUEZ ARRUGAETA, M.BEGOÑA INIGUEZ ARRUGAETA, J.MIGUEL	11	98	Zelaia / Pradera	0	932	229	19/4/23	12:00
19/000	LOPEZ DE ABECHUCO, OLABARRIA, ANTON	11	97	Zelaia / Pradera	0	165	88	19/4/23	12:45
4/000	IBARRONDO, ZULUETA, KOLDO	4	373	Mendia / Monte	0	259	34	20/4/23	10:00
6/000	IBARRONDO, ZULUETA, KOLDO	4	371 A	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	36 0	2020 9326	2020 899	20/4/23	10:00
7/000	IBARRONDO, ZULUETA, KOLDO	4	369 A-B-C	Mendia / Monte	8	2648	559	20/4/23	10:00
34/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE LARRIMBE	1	203	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	10 0	278 301	278 0	20/4/23	11:45
39/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE LARRIMBE	1	157	Ez-emankor / Improductivo Larrea B / Pasto B	4 0	878 882	878 0	20/4/23	11:45
40/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE LARRIMBE	1	206 F	Larrea B / Pasto B	16	1934	976	20/4/23	11:45
41/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE LARRIMBE	2	106	Mendia / Monte	0	170	85	20/4/23	11:45
42/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE LARRIMBE	1	190 I	Mendia / Monte	6	219	98	20/4/23	11:45
49/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE LARRIMBE	1	197 A	Ez-emankor / Improductivo Larrea / Pastizal	0 4	317 2293	107 566	20/4/23	11:45
48/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE LARRIMBE	1	248	Zelaia / Pradera	0	300	0	20/4/23	11:45
47/000	ALDAMA, MURGA, M. AMAYA	1	247	Zelaia / Pradera	0	488	0	21/4/23	10:00

FINKA ZK.	TITULARRA	KATASTROKO DATUAK		APROBETXAMENDUA	ERAGINDAKO AZALERA m ²			EGUNA	ORDUA
		POLIGONOA	LURSAILA		BEHIN-BETIKOA	ALDI BATERAKOA	LURRAZPIKO AKUEDUKTU ZORTASUNA (3m)		
Nº FINCA	TITULAR	DATOS CATASTRALES		APROVECHAMIENTO	SUPERFICIE AFECTADA m ²			DÍA	HORA
		POLIGONO	PARCELA		DEFINITIVA	TEMPORAL	SERVIDUMBRE SUBTERRÁNEA DE ACUEDUCTO (3m)		
50/000	ALDAMA, MURGA, M. AMAYA ANGULO OYARZABAL, ALBERTO JAVIER	1	129 A	Fruitu-arbolak / Frutales	6	464	130	21/4/23	10:00
46/000	INIGUEZ, GONZALEZ, VALENTINA	1	2	Zelaia / Pradera	0	1311	0	21/4/23	11:00
12/000	LARRINAGA, MENDIETA, LAURA	3	35	Zelaia / Pradera	6	572	79	21/4/23	12:15
10/000	ISASI, INIGUEZ DE ONZONO, LUIS MARIA	3	36	Larea / Pastizal	0	472,26	38	21/4/23	13:00
37/000	ZULUAGA, ALCACENA, M. ESTHER	1	154	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	0	270 271	270 0	24/4/23	10:00
38/000	ZULUAGA, ALCACENA, M. ESTHER	1	155	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	0	83 82	83 0	24/4/23	10:00
11/000	LINAZA, UGARTE, ELENA	3	207	Fruitu-arbolak / Frutales	0	77	16	24/4/23	11:00
44/000	ZULUETA, MUGURUZA, JOSUNE	1	219	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	0 6	529 408	529 0	24/4/23	12:15
8/000	MANZARBEITIA, MANZARBEITIA, J. JAVIER LAZCANO GASTACA, MARIA TERESA	3	319	Larea / Pastizal	37	688	138	24/4/23	13:00
13/000	RESA, CAMINO, ALICIA	11	87 A-B 87-D	Mendia / Monte Zelaia / Pradera	0	1892 352	147 185	25/4/23	10:00
16/000	RESA, CAMINO, ALICIA	11	94	Zelaia / Pradera	0	135	0	25/4/23	10:00
20/000	RESA, CAMINO, ALICIA	11	99	Mendia / Monte	0	326,01	6	25/4/23	10:00
43/000	GUINEA, UGARTE, J. CRUZ	1	132	Mendia / Monte	4	280	138	25/4/23	11:15
35/000	ZULUAGA, MENDIVIL, MIGUEL ANGEL	1	159 A 159 B	Larea / Pastizal Ez-emankor / Improductivo	0 4	82 641	0 360	25/4/23	12:30
36/000	ZULUAGA, MENDIVIL, MIGUEL ANGEL	1	158	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	4 0	549 543	549 0	25/4/23	12:30
24/000	GARCIA, ALBIZUA, IMANOL	11	871	Ez-emankor / Improductivo	0	53	27	26/4/23	10:00
17/000	LARRINAGA, MUGURUZA, IZASKUN LARRINAGA, MUGURUZA, JUAN CARLOS	11	95	Zelaia / Pradera	0	156	0	26/4/23	10:45
5/000	JUNTA ADMINISTRATIVA DE BARAMBIO	4	329	Ez-emankor / Improductivo Mendia / Monte	8 0	304 874	304 25	26/4/23	12:00
9/000	AYUNTAMIENTO DE AMURRIO	3	317	Mendia / Monte	23	78	15	26/4/23	12:45
31/000	AYUNTAMIENTO DE AMURRIO	11	756	Mendia / Monte	0	73	26	26/4/23	12:45